

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA****Onestea egonkortzeko enplegu publikoaren eskaintza, 2022koa**

Lehendakariaren 2022ko maiatzaren 11ko ebazpen bidez hau ebatzi da:

1. Onestea Arabako Lautadako Kuadrillaren 2022. urteko enplegu publikoaren eskaintza, egonkortze prozesuak eta aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdia artikulatzen dituena:

**ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIA****LEHIAKETA BIDEZKO SARBIDE SISTEMA IREKIA****Funtzionarioak**

IZENA	TALDEA	ESKALA	TITULAZIOA	H. ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA	DEDIKAZIOA
GIZARTE LAGUNTZAILEA HEGOALDEA	A2	Adm. Berezia	Gizarte Lanetan diploma	2	2013/5/30	% 100
EUSKARA TEKNIKARIA	A2	Adm. Berezia	Unibertsitate gradua, lizentzia edo diploma edo baliokidea	4	2015/5/04	% 100
GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	C2	Adm. Orokorra	DBHko gradua edo baliokidea	2	2018/5/28	% 100

**Lan kontratudunak**

IZENA	TALDEA	TITULAZIOA	H. ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA	DEDIKAZIOA
INGURUMENEN TEKNIKARIA	A1	Unibertsitate titulua ingurumenarekin lotutako arlo zientifiko teknikoetan	3	Datarik gabe	% 100
GIZARTEA ETA KULTURA SUSTATZEKO TEKNIKARIA	C1	Batxiler titulua edo teknikoak	3	2013/5/30	% 100
GIZARTE-LAGUNTZAILEA	A2	Gizarte Lanetan diploma	—	—	% 100

2. Erabaki hau ALHAOn, kuadrillaren iragarki taulan eta web orrian argitaratzea, bai eta haren laburpen bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere, jende guztiak horren berri izan dezan eta, hala badagokio, egoki irizitako errekurtsioak aurkez ditzan.

3. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, bidezko ondorioak izan ditzan.

Agurain, 2022ko maiatzaren 11

*Lehendakaria*

**RUBÉN RUIZ DE EGUINO LÓPEZ DE GUEREÑU**